18 nº zbk

Beasaingo Udala

# Beasaindik

SEPTIEMBRE **2017 IRAILA**

**Udal Aldizkaria** *Revista municipal*

## Hausnarketa prozesuan Erauskin eremurako aztertutako aukera ezberdinak

### *Alternativas estudiadas dentro del proceso de reflexión para la zona de Erauskin*




## AURKIBIDEA | *ÍNDICE*

**ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN**

**2** ¬ Hausnarketa eta ekarpen aberasgarriak
¬ EITak pasa behar dituzten etxebizitzei jakinarazpen gutuna bidaliko zaie
¬ Erauskin eremuari buruzko hausnarketa prozesuan landutako aukerak

**BEASAIN, HERRI BIZIA**

**4** ¬ Ehunmilak
¬ Loinatz Abesbatzak Junkal Guerrerori agurra
¬ San Gregorio ermitako erromeria
¬ Gerra zibilean fusilatutakoei omenaldia
¬ Udako hirigintza lanen argazkiak

**BEASAINDARRAK PROTAGONISTA**

**6** ¬ Ondo Ibili Ondo Izan
¬ Jarduera Fisikoa Sustatzeko Orientazio Zerbitzua

**BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA**

**Beasaingo Udala | Loinazko San Martin plaza - 20200 Beasain | 943 02 80 50 | udala@beasain.eus**

## GUTUNA



**Aitor Aldasoro**
Beasaingo alkatea

**HAUSNARKETA ETA EKARPEN ABERASGARRIAK**

Hilabeteak daramatza martxan Kale Nagusia eta Nafarroa etorbidea lotzen dituen eremua oinezko bihurtzeko probak. Alabaina, behin betiko erabakia hartu aurretik beharrezkotzat jo genuen gaia sakon aztertzea eta helburu hori abiaburu hartuta, hausnarketarako eta lanketarako prozesua egin dugu herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzeko. Prozesua oso emankorra eta aberasgarria izan da eta hainbat ekarpen jaso ditugu.

Peatonalizaziotik abiatu ginen eta bidean, herritarren parte hartze eta hausnarketari esker, beste aukera batzuk ere mahairatu zaizkigu. Besteak beste, epe motzera, Oriamendi kalean bi noranzkoak berreskuratzea edota pergoletan aparkaleku kopurua handitzea. Epe luzera aldiz, Erauskin inguru guztia hartuko lukeen plaza sortzea izan da herritarren eskakizunetako bat. Aukera horietatik guztietatik, prozesuan parte hartu duten gehienak oinezko egitearen alde azaldu dira, argi eta garbi.

Prozesuak emandako guztia eta herritarren iritziak kontutan izanda, etorkizunera begira, herriarentzat eta herritarrentzat onena den aukera eta erabakia hartuko dugu. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu prozesuan parte hartu duten herritar guztiei egindako lan eta ekarpenengatik.

***Reflexiones y aportaciones productivas y enriquecedoras***

*El proceso de reflexión y trabajo realizado junto a la ciudadanía sobre la prueba de peatonalización de la zona de Erauskin ha sido muy enriquecedora y productiva, ya que se han recogido muchas opiniones y aportaciones y se han trabajado diferentes alternativas y opciones. Por ejemplo,*

***A corto plazo**: Recuperar la doble dirección en Oriamendi y aumentar el número de aparcamientos en las pérgolas.*

***A largo plazo**: Crear una gran plaza en toda la zona de Erauskin vaciando dicha zona de coches.*

*Estas opciones han hecho que la mayoría de las personas, incluso las más reticentes, se hayan posicionado a favor de la peatonalización. Ahora, atendiendo a las alternativas trabajadas y teniendo en cuenta la opinión de la ciudadanía y las conclusiones del proceso, adoptaremos la decisión que creamos que es mejor para Beasain y las/los beasaindarras de cara al futuro y el bienestar de la población.*



## EIT-AK PASA BEHAR DITUZTEN ETXEBIZITZEI JAKINARAZPEN GUTUNA BIDALIKO ZAIE



Beasaingo kale, auzo eta inguruneak hobetzea helburu duen **Beasain Lagunkoia** egitasmoaren baitan sortutako lan taldea gai ezberdinak aztertzen eta lantzen ari da, herritarrei egindako inkestetan adierazitako lehentasunezko gaiei erreparatuz.

Etxebizitzaren alorrak jaso zuen inkestan baloraziorik baxuena, hori dela eta, gaia sakon aztertu da. Azterketa horren baitan 2018an Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa (EIT) pasa behar duten 50 urtetik gorako etxebizitzak identifikatu eta zerrendatu dira, guztira, 207. Udalarekin elkarlanean etxebizitza jabeei jakinarazpen gutuna bidaliko zaie irailean eta ordenantza fiskaletan, etxebizitzen birgaitze lan horiei zuzendutako laguntza lerro berria lantzen ari da udal gobernu taldea.

*"Dentro de la iniciativa **Beasain Lagunkoia** el grupo de trabajo ha identificado y listado las viviendas que deben pasar la ITE el próximo año 2018. En septiembre se enviarán notificaciones a todas aquellas viviendas listadas, 207, y el equipo de gobierno está estudiando incluir una nueva línea de subvenciones en las ordenanzas fiscales dirigida a las personas propietarias de las viviendas con más de 50 años que deberán pasar la inspección técnica de edificios"*





# ERAUSKIN EREMUARI BURUZKO HAUSNARKETA PROZESUAN LANDUTAKO AUKERAK



Kale Nagusiarekin bat egin duen Erauskingo eremurako hirigintza eta mugikortasunaren inguruko aukerak aztertzeko hausnarketa prozesua gauzatu zen ekainean. Prozesuak helburu izan du aukera ezberdinak landu eta aztertzea, interes partikularretatik haratago, herriarentzat eta herritarrentzat hoberena zer den pentsatuz.

Mugikortasun eta hirigintza aukera ezberdinak landu dira prozesuan eta aztertu diren aukerak direla eta, prozesuan parte hartu duten gehienek oineztatzearen alde egin dute. Dena den, prozesuan ez da erabakirik hartu, beraz, orain, aukera guztiak eta herritarren iritzi eta ekarpenak aintzakotzat hartuz behin betiko erabakia hartuko du Udalak.

### *ALTERNATIVAS ANALIZADAS EN EL PROCESO DE REFLEXIÓN PARA LA ZONA DE ERAUSKIN*

*Partiendo de la opción de peatonalizar la zona, en el camino, se han planteado y estudiado diversas alternativas relacionadas con la movilidad –aparcamientos, tráfico…- y urbanismo:*

***A corto plazo**:*

- *Aumentar el número de plazas de aparcamiento en el entorno de las pérgolas*
- *Recuperar la doble dirección en Oriamendi*

*Ello permitiría **a largo plazo**:*

- *Crear una plaza peatonal que uniría la zona de las pérgolas con la cuesta de Erauskin, eliminando la opción de aparcar en la cuesta y planteando para ello soluciones que permitan recuperar los aparcamientos eliminados: parking subterráneo en la cuesta Erauskin o en las pérgolas.*



*Cabe destacar que, ante la posibilidad de convertir la calle Oriamendi de doble dirección y aumentar el número de plazas de aparcamiento en las pérgolas (30), la mayoría de las personas participantes se han mostrado a favor de la peatonalización.*

# UZTAILA-ABUZTUAN BEASAINEN














Ehunmilak 2017 (Argazkiak: www.lasterketak.eus)







Loinatz Abesbatzak Junkal Guerrerori agurra




San Gregorio ermitako erromeria




Gerra zibilean fusilatutakoei omenaldia








Udako hirigintza lanak

# ONDO IBILI ONDO IZAN

**Ondo ibili, ondo izan ostegunetako ezinbesteko topaketa bilakatu da adineko pertsonen artean, izan ere, gero eta beasaindar gehiagok zaintzen baitute beren osasun fisiko eta psikikoa lagunartean ibilaldiak eginez.**

**Adineko pertsonen artean ohitura osasuntsuak sustatzea da egitasmoaren helburu nagusia, herritarren ongizatea eta zahartze aktiboa indartzeko. Horretarako, luzera eta zailtasun desberdineko ibilbideak prestatu dira, guztiak seguruak eta adineko pertsonei egokitutakoak. Beasaingo erakunde eta boluntario desberdinen laguntza izaten dute partaideek ibilbide osoan zehar.**

ondo ibili ondo izan

caminar por el bienestar

*Cada jueves las personas de la tercera edad se dan cita en la plaza para hacer uno de los recorridos saludables de Ondo ibili, ondo izan. Este programa favorece el envejecimiento activo mediante hábitos saludables que combaten el sedentarismo y fomentan también las relaciones sociales.*

## IBILBIDEAK *RECORRIDOS*



**URBIALDE PLAZA**
**275 m**

**ORIA BIDEA**
**2,9 km**

**FUTBOL ZELAIA**
**2,4 km**

**KIROLDEGIA - ORIA**
**5,9 km**

## PEDRO MARI PEREZ - Ekimenean parte hartzen duen boluntarioa

**Zenbat denbora daramazu Ondo ibili, ondo izan ekimenean parte hartzen eta zer nabarmenduko zenuke ekimen honetatik?**

Guztira 4 bat urte daramatzat ostegunero irteerak egiten. Bereziki sortzen den giro ona azpimarratuko nuke. Guztiak aritzen gara hizketan, parrez, gustora, ez dago inolako haserrerik eta bertan parte hartzen dugun guztiak oso kontentu gaude ekimenarekin.

Egiten ditugun ibilbideak ez dira zailak eta esan bezala, oso giro polita sortzen da. Horregatik, haur, gazte, heldu eta adineko pertsonak parte hartzera gonbidatzen eta animatzen ditut.



**Zein ekarpen egiten die ekimenak parte hartzaileei eta bolondresei?**

Erakunde ezberdinek parte hartzen dute ekimenean, Udala barne, eta horrek adineko pertsonen artean kirol praktika sustatu du.

Gure asmoa da urtea amaitzerako 80-100 pertsonak Ondo ibili, ondo izan ibilbideetan parte hartzea lortzea. Orain arte, gehienez 48 pertsona elkartu gara eta zenbat eta pertsona gehiago elkartu, hobe!

## JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO ORIENTAZIO ZERBITZUA

***Dentro de la campaña Osasuna-Kirola y con el objeto de impulsar el envejecimiento activo, hace varios meses el Ayuntamiento puso en marcha un nuevo servicio de orientación para la actividad física en el polideportivo.***

**NOIZ** *CUÁNDO*?
**Asteartea**k *Martes*: **18:00 - 20:00**
**Ostegunak** *Jueves*: **12:00 - 14:00**
**NON** *DÓNDE*?
**Antzizarren** *En Antzizar*
**Aurretik hitzordua eskatu behar da**
*Es necesario pedir cita previa*
**Telf. 943 88 79 00**

***El servicio de orientación personalizada para la actividad física está dirigido principalmente a personas mayores que no practican deporte. Su principal objetivo es favorecer el bienestar de las personas promoviendo hábitos saludables entre las mismas. Es un servicio gratuito que se ofrece en el polideportivo y que se ajusta a las necesidades, costumbres y patologias de cada persona. El técnico responsable del servicio adapta la práctica deportiva a las condiciones de la persona con el objeto de mejorar su salud y su calidad de vida.***

### Xabat Ibarguren, aholkularitza zerbitzuaren arduraduna




**Nolako harrera izan du zerbitzuak? Zenbat pertsona gerturatu dira bulegora?**

Hasiera batean nahiko harrera apala izan zuen, batez ere lehenengo bi hilabetetan. Osasun zentrotik kosta egin zitzaien jendea bideratzeko lehen pausuak ematea eta gerturatu zen jendea kiroldegiko harreratik edo ahoz ahoko informazioaren bitartez bideratuta etorri zen. Udalak zerbitzuaren aurkezpen ofiziala egin ostean hasi zen proiektua goraka eta lanean egon garen hilabete hauetan 30 erabiltzaile inguru izan ditu zerbitzuak.

***¿Cómo explicarías qué es el servicio de orientación a aquellas personas que aún no lo conocen?***

*Es importante aclarar que es un servicio de orientación y no de entrenamiento personalizado. La sociedad tiene interiorizado que la actividad física nos ayuda a mantener nuestro cuerpo sano, pero el cuerpo de cada persona es diferente y por tanto, se debe adecuar la práctica física a las características de cada persona. El objetivo de este servicio es conocer las características de la persona usuaria y aconsejarle la actividad que mejor se ajusta a sus necesidades. No se prescribe, como bien he dicho, un entrenamiento personalizado sino que se ofrecen recursos para ayudar a la persona a llevar una vida más saludable.*

**Zein abantaila eta onura eragiten ditu zerbitzuak eta kirol praktikak?**

Jarduera fisikoak gure gorputzarengan dituen onurak ugariak dira eta ikerketa asko burutu dira teoria hau baieztatzen dutenak, besteak beste, gaitz kardiobaskularren prebentzioan, arazo metabolikoetan, indarraren galeran eta arlo psikologiko eta sozialean. Hala ere, aurrez aipatu bezala, jarduera guztiek ez dute pertsona guztientzat balio eta hauek pertsonalizatu egin behar dira. Zerbitzua erabiltzen duen pertsonak, berari ondoen egokitzen zaizkion jarduerak zeintzuk diren ezagutuko ditu eta inongo arriskurik gabe jarduera fisikoa egiten lagunduko zaio.

***¿Cómo atiendes a quienes se acercan a la oficina y qué le dirías a quien está pensando en acudir al servicio?***

*Obtenemos la mayor información posible por medio de un cuestionario que nos ayuda a definir el perfil de la persona e identificar sus necesidades. Después, asesoramos a la persona en respuesta a sus necesidades y le marcamos unas pautas a seguir.*

*A quienes están dudando si acudir o no al servicio les animaría a venir; el servicio es gratuito. Además, a lo largo de nuestra vida seguimos consejos que hemos oído y muchas veces, realizamos actividades que no se ajustan a nuestras características. Estos últimos años se ha avanzado mucho en el mundo del deporte y la actividad física y la persona que acuda al servicio podrá conocer y corregir aquello que hace mal para seguir haciendo lo que hace bien con muchas más tranquilidad.*

# JAKINARAZPENAK
## *NOTIFICACIONES*

### EGUTEGI FISKALA *CALENDARIO FISCAL* 2017

| ZERGAK ETA TASAK *IMPUESTOS Y TASAS* | Kobrantza epea *Periodo de cobro* |
|---|---|
| **Ibilgailuak finka hiritarretan sartzeko sarrera** *Entrada de vehículos a fincas urbanas* | 2017.09.01 - 2017.10.31 |
| **Ibilgailuen geraleku eta kokagunea** *Parada y situación de vehículos* | 2017.09.01 - 2017.10.31 |

igartza musika

IGARTZAKO JAUREGIAN
**Khami**

**IRAILA**
*septiembre*

24
19:00



**Kultura nahasketen soinu mestizoak**

# DATUEKIN JOLASEAN

**Formakuntza Plana jaso duten %80 lanean izango da hilabete honetan**

*El 80% de las personas que han participado en el Plan de Formación estará trabajando este mes*

| BEASAINGO UDALAren ENPLEGU PLANA *PLAN DE EMPLEO del AYUNTAMIENTO DE BEASAIN* | |
|---|---|
| **Formakuntza Plana GOIEKI** *Plan de Formación GOIEKI* | |
| **Formakuntza Plana jasotako beasaindarrak** *Beasaindarras que han recibido el Plan de Formación* | 10 |
| **Lanean daudenak** *Personas que ya están trabajando* | 5 |
| **Irailean lanean hasiko direnak** *Personas que comenzarán a trabajar en septiembre* | 3 |
| **Irailean zehar irteera emango zaienak** *Personas a las que se les dará salida a lo largo del mes de septiembre* | 2 |

17/18
CURSO IKASTURTEA
Matrikula epea ZABALIK
Plazo de matriculación ABIERTO

**Matrikula zabalik**
Matrícula abierta

**IZENA EMAN** / INSCRIPCIÓN
**Irailaren 4tik 15era** / Del 4 al 15 de septiembre

**IKASTARO MOTAK** / TIPOS DE CURSOS
**Astean 2 edo 4 egunekoak** / De 2 o 4 días por semana
**Trinkoak 3 hilabetekoak** / Intensivos de 3 meses
**Auto-ikaskuntza** / Auto-aprendizaje
**Gurasoentzako ikastaroak** / Cursos para padres-madres
**Hizkuntza tailerrak** / Talleres lingüísticos

udal euskaltegiak

**MAILAK** / NIVELES
**Euskalduntze-maila guztiak** / Todos los niveles
**Azterketak prestatzeko ikastaroak** / Cursos para preparar exámenes
**C2 (4. maila) on-line** / Cursos on-line de nivel C2 (4º nivel)

**BERRIA!**
**Titulu ofizialak euskaltegian bertan lortzeko aukera** / Posibilidad de conseguir los títulos oficiales en el euskaltegi

**DIRU LAGUNTZAK ETA BALDINTZA BEREZIAK LANGABETUENTZAT**
Becas y condiciones especiales para desempleados/as.




BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA
EUSKALTEGI MUNICIPAL
J.M. Iturriotz, z/g - behea
(LANBIDE parean / frente a LANBIDE)
Tel. 943 028 100
euskaltegia@beasain.eus

BULEGOKO ORDUAK / HORAS DE OFICINA
Goizez / Mañanas: 10:00 - 13:00
Arratsaldez / Tardes: 16:00 - 18:00

IKASTURTE HASIERA / INICIO DEL CURSO
Urriaren 2a / 2 de octubre

**IZENA-EMAN HIZKUNTZA ERREFORTZU ZERBITZUAN**

*INSCRÍBETE EN EL SERVICIO DE REFUERZO LINGÜÍSTICO*



# LOTURAK *ENLACES*

- **kzGunea**
  www.kzgunea.eus
- **Musika Eskola**
  www.beasaingomusikaeskola.eus
- **Antzizar kiroldegia**
  www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia**
  www.udaleuskaltegiak.eus

Sar zaitez Beasaingo Udalaren webgune berrian!

**www.beasain.eus**

Beasaingo Udala

Lege gordailua SS 403-2016